

ERRORE ZUZENKETA

Maiatzaren 26ko 41/2022 Alkatetza Dekretuaren bidez, Hernialdeko Udalak Hernialdeko Udaleko zerbitzu anitzeko langile balioaniztunaren plaza bat betetzeko oinarriak onartu zituen.

Deialdia egin da, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu da (110. zk., 2002ko ekainaren 10ekoa). Bertan akatsak antzeman dira, eta zuzendu egin behar dira. Hona hemen akats horiek:

Bigarren oinarrian, izangaien baldintzei buruzkoan, osatu egin behar da, eta azken bi parágrafo gehitu, eduki honekin:

“ Halaber, prozesuan parte hartu ahal izango dute Espainian legezko bizilekua duten atzerritarrek eta espainiarren eta Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako herritarren ezkontideak, betiere zuzenbidez bananduta ez badaude, eta haien ondorengoak eta haien ezkontidearenak, betiere zuzenbidez bananduta ez badaude, 21 urtetik beherakoak badira edo adin horretatik gorakoak badira”.

"Deialdian parte hartzeko baldintza izango da 1. hizkuntza-eskakizuna izatea, eta hori nahitaezkoa izango da 2022ko apirilaren 13tik".

Oposizio-faseari buruzko seigarren oinarrian zuzendu egin behar da, eta laugarren paragrafotik aurrera honela idatzita geratuko da:

1. ariketa: gai komun eta espezifikoei buruzko ariketa: derrigorrezkoa eta baztertzaila izangai guztientzat.

Idatziz erantzun beharko zaie, hainbat hautabiderek (test motakoak), epaimahaiak egokitzat jotzen dituen gaiak, oinarri hauekin batera doan I. eraskineko gai-zerrendari dagokionez.

Ariketa hau gehienez 20 punturen gainean kalifikatuko da, eta gutxienez 10 puntu beharko dira gainditzeko.

2. ariketa: praktikoa. Nahitaezkoa eta baztertzaila izangai guztientzat.

Proba praktikoa bat edo gehiago egin beharko dira, deitzen den lanpostuaren profilean adierazitako eginkizun eta zereginekin lotuta.

Ariketa hau gehienez 50 punturen gainean baloratuko da, eta gutxienez 25 puntu lortzen ez dituzten izangaiak prozesutik kanpo geratuko dira.

Oposizio-aldiko puntuazio osoa: 70 puntu.

3. ariketa: euskararen hizkuntza-eskakizuna: 1. hizkuntza-eskakizunari dagozkion euskeraren ezagutzak baloratuko dira.

Eskabidearekin batera egiaztatzen duten izangaiek ez dute probarik egin behariko. Era berean, hautaketa-prozesu honetako euskara-proba egin aurretik edozein unetan egiaztatu ahal izango da. Ez da beharrezkoa izango ariketa hori egitea, izangai guztiek gutxienez 1. hizkuntza-eskakizuna dutela egiaztatzen badute.

Eskatutako hizkuntza-eskakizuna ez duten izangaiek IVAPek zehaztutako prozedura, modua eta egiaztapen-epeak bete behariko dituzte. Azken emaitzak izangaia gai edo ez-gai gisa kalifikatuko du.

Hernialden, 2022ko uztailaren 6ean

ALKATEA